




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Maiak: uste baino gehiago eta lotuago

Yucatan penintsula, X. mende hasiera. Maien zibilizazioaren gain-behera hasi zen, ziurrenik klimaldaketak bultzatuta, eta, hala, zibilizazio haren urrezko aroa, Aro Klasikoa, amaitu zen. Aurreko hiru mendetan maien populazioak gailurra jo zuela uste izan dute adituek: 10-11 milioi biztanle. Baina, berriki, ikerlan batek kopurua askoz handiagoa zela ondorioztatu du: gutxienez 16 milioi.

Azken urteetan LiDAR teknologiak –laser bidez objektuak antzemateko eta neurtzeko sistemak– sekulako bultzada eragin du arkeologian, bereziki landarediak estalitako eremuetan. Yucatan penintsulan, maien hiri nagusiak (Tikal, Palenque, Chichen Itza...) ondo dokumentatuak egon arren, oihan tropikalak kokaleku txikiagoak ikertzea oztopatu du. Orain, Francisco Estrada-Belli arkeologoa buru duen lantaldeak 95.000 kilometro koadroko eremua kartografiatu ahal izan du, eta emaitza *Journal of Archaeological Science Reports* aldizkarian argitaratu. Aurrez, 2018an, adituek maien zibilizazioaren populazio-estimazio bat egin zuten, baina, esan bezala, ikerlan berriak kopurua gutxienez %45 handiagoa zela ondorioztatu du, arkeologoen halako igoera espero ez zuten arren.

Baina, populazio-dentsitateaz harago, ikerlariak beste ondorio batzuk atera dituzte. Orain arte ikusi gabeko nekazaritza kokaleku asko aurkitu dituzte,



INAH

eta gune horiek ez zeuden uste bezain isolatuak. Kokaleku gehienak eliteek kontrolatutako guneeetatik gertu zeuden, gehienez ere 5 kilometroko distantzian. Horrek esan nahi du landaguneko biztanle gehienek gune nagusietako jarduera ekonomiko, politiko eta sozialetan parte hartzeko aukera zutela.

Estrada-Bellik dioenez, “froga sendoak ditugu esateko maien gizartea oso egituratuta zegoela, hirietan nahiz nekazaritza

guneetan, eta orain arte uste baino askoz aurreratuagoa zegoela baliabideei eta antolaketa sozialari dagokionez”.

Maien zibilizazioa estatu-hiri independenteen multzotzat jo da luzaroan eta ikerlan honek erabat irauli du irudi hori. Eta LiDAR sistemak maien zibilizazioaren aro klasikoa berdimentsionatu duen moduan, beste leku eta garai askorekiko dugun begirada zorrozten lagundu dezake etorkizunean. ●



M. GUAGNIN ET AL.

12.000 urteko bide-seinaleak

Nafudeko basamortuan (Saudi Arabia) duela 12.800-11.400 urteko 176 grabatu topatu dituzte, gehienak tamaina errealeko ganbeluenak. Grabatu horiek gainera ez daude, ohi bezala, leizeetan edo leku ezkutuetan, agerian baizik.

Green Arabia Projecteko adituen ustez, arte-adierazpen hutsaz harago,

grabatuak bide-seinale moduan erabili zituzten, eta, zehazki, ura non topatu zitekeen esaten zioten bidaiariari. Eta Ceri Shipton arkeologoaren hitzetan, biziraupenerako tresna izateaz gain, grabatu horien atzean “lurralde eskubideak eta belaunaldien arteko memoria ere badaude”. ●